



Lenin Tontorra zapaldu du Gonzalo Zabalak

Gonzalo Zabala, herriko mendizaleak, Asian, Kirgistanen, 7.134 metroko Lenin mendia igo du aurtengo udan. Luzea izan zen igoera, haize indartsua zebilen eta hotz handia zen. Gogorrera baldintza horietan eta garaiera horretan 14 kilometroko ibilbidea osatzea izan zen. 15 ordu behar izan zituzten joan etorrian. **4/5. orrialdeak**

2012ko zergak onartu ziren

EAJ, PSE eta PP alderdien emendakinak eztabaidatu ziren batzarrean

Ostiralean goizean goiz burutu zen Udalbatzarrean 2012. urterako ordenantzak onartu ziren EAJ, Bildu eta LOHPren bozkei esker. PSE eta PPK aurkako botoa eman zuten.

Baina eguneko gai nagusia jorratu baino lehen, Udaleko ondasun eta eskubideen 2011ako inbentarioan egindako aldakuntzak onetsi ziren aho batez.

Emendakinak

Ostiraleko udalbatzarrean Ogasun Batzordetik ekarritako zuzenketak aztertu ziren gaika.

Ibilgailuei dagozkien zergak iazkoan mantentzeko eskaera egin zuen PPK, baina aldeko bozka bakarria izan zuen proposamenak.

Era berean, ondasun higiezin egungo tarifari eusteko eskatu zuen. Aurreko bozken



antzerak, ez zen proposamena aurrera ateratu.

PSEk, aldiz, jarduera ekonomikoetako zergari KPIa eranstea proposatu zuen, ez baitute uste zerga dagoen bezala mantenduz enpresak gure herrira etorriko direnik. PSEren iritziz, "bonifikazioak daude horretarako". Proposamena ez zen aurrera ateratu.

Honetaz gain, kirol federatua egiten duten heldu zein haurrentzat beherapena duen txartel berezi bat sortzeko eskaera egin zuten PSE-EEko kideek, baina proposamen hau ere ez zen onartu.

Zaborren tasari dagokionez, EAJk %5ko igoera proposatu zuten eta PSE-k %3a. Ez ziren onetsi.

Bestalde, herriak hondakinen %50a birziklatzea lortuko balu, hurrengo urtean zergaren %50ko hobaria izan dadila proposatu zuen PSEk. Baina zuzenketa ez zen aurrera ateratu.

EAJk kultura arloan hiru proposamen egin eta hirurak aurrera ateratu ziren, horietako bi aho batez.

Zuzenketa hauen bitartez, kultur etxeko gazte ikastaroen prezioa %10a igoko da eta ordenantzetan antzerki eta dantza emanaldietako sarreren tarifak agertuko dira.

Azkenik, Bilduko Gobernuak Pirritx eta Porrotxek Nafarroan pairatu duten presio mediatikoa salatzen zuten.

Informazio zehatzagoa

Udalbatzarrean onartutako 2012ko ordenantza fiskalei eta zergei buruzko informazio zehatzagoa eskainiko dugu hurrengo zenbakian. •

Herriko atletak bikain Behobia Donostia proban

Lasarte-Oria Bai! krosaren ostean, Behobia-Donostia lasterketa da herriko korrikalarien artean kutunena. Igande goizean atleta ugari bildu zen Euskotreneko geltokian denak batera Behobia aldera abiatzeko. Korrikalariak haizea eta beroa izan zituzten lagun burutu beharreko 20 kilometroetan, baina horrek ez zituen herriarrak kikildu. Aipatzekoa da, bost lasarteoriarrek egin zutela proba ordubete eta 10 minutu azpitik. David Martin 14. postuan sartu zen donostiako helmugan. •



Trena hartu aurretik, talde argazkia ateratu zuten Behobia-Donostian parte hartu zuten herriko korrikalariak.

TXEMA

HAUTESKUNDEAK /2

Alderdi politikoek hainbat ekitaldi burutu dituzte azken egunotan

ALBISTEA /3

Landaberriek jangela propio izateko eskubidea aldarrikatu du

ALBISTEA /3

Euro bateko beherapena izango da Kultur webean



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Amaiurrek Okendon egin zuen ekitaldi nagusia eta bertan, Xabier Mikel Errekondo hautagaiak hartu zuen hitza.



EAJko Lore Leanizbarrutiak herritarrei azalpenak eman zizkien.

Abian da kanpaina

Alderdi politikoak herrian zehar botu bila dabilta egunotan

Azaroaren 20ko hauteskunde orokorrak direla eta, alderdiak bozkak biltzeko kanpaina dabilta egunotan herrian zehar. Asteazken goiza aukeratu zuten besteak beste PSE-EE, Ezker Anitza eta Amaiurrek euren programen informazioa herritarren artean banatzeko.

Lehenek ohi bezala, programarekin batera arrosak, goxoki eta Rubalcabaren izena daramaten txapak banatu zituzten herritarren artean. Lan hauetan aritu zen Jesus Zaballós eta Ana Urchueguia alkate ohiak alderdikideekin batera: Zaballósen iritziz herritarrek harrera beroa egin zieten egun horretan eta arrosak hoge minututan bukatzea horren

adibide zela azaldu zigun. 24 urtetan alkate izan ondoren egun Txile eta Perun Jaurlari-tzaren delegatu den Urchueguia aspaldiko partez agertu zen Lasarte-Orian.

Ezker Anitza-ko kideen kasuan, "demokrazia ala merkatuak" lelopean aurkeztzen duten hautagaitzaren berri eman zuten herritarren artean.


Amaiur koalizioako kideak berriz, Pablo Barrio alkatea tartean, herrian ostiraleko ekitaldi politikoaren berri eman nahi izan zuten eta horretaz gain, besteen antzera euren programa banatzen jardun ziren.

Ostiralean Okendon egin-dako ekitaldian, Xabier Mikel Errekondo Gipuzkoako zerrendetan hautagai denak hartu

zuen hitza. Azaroaren 20an hautestontziak Amaiurren botuz "lehertzer" gonbidatu zituen bertaratutak eta azken txanpari gogoz eusteko.

EAJ berriz, larunbat arratsaldean gozoki eta puzgarriak banatzen aritu zen herrian zehar. Lore Leanizbarrutia Senaturako gipuzkoako hautagaiak herritarrekin solasteko aukera izan zuen.

Oro har ez da kanpaina hemen bukatuko, asteazkenean berriz azoka ordutan bertan egoteko asmoa dutela azaldu zuten zenbait alderdik. Izan ere, oso garrantzitsutzat jotzen dute herritarrek euren programan jasotzen diren ideia nagusiak ezagututa bozka "arduraz" ematea. •



Ezker Anitza alderdiko Antton Karrera programa banatzen ibili zen azoka egunean.



PSE-EEko Jesus Zaballós eta Ana Urchueguia herritarren artean arrosak banatzen.



Zaballós alkate ohiak zenbait herritarren iritzia ere entzun zituen arrosa banaketan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Garaikoetxea ikastetxetik hainbat haur taldean joaten dira jangelara hiru begiraleren laguntzaz.

Jangela izateko eskubidea aldarrikatu du Landaberri

Arazoaren konponbidea eskatu dio Hezkuntza Sailari

Jangelaren arazoa konponzeko eskatu dio Landaberri Ikastolako Ordezkaritza Organo Gorenak Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari. Ikastolako zuzendaritzak, irakasleek, ikasleek, gurasoek, Udalak, administrazioa eta zerbitzuetako langileek osatzen duten organo honek prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez.

Ikastolako Ordezkaritza Organo Gorenaren iritziz, "egoera larri honetan bigarren urtez jarraian ezin dugu segi. Hezkuntza Sailari neurri zehatzak eta bidezkoak eskatzen dizkiogu: epe laburrean bi eraikinetan jantoki bana egitea eta bitartean behin behineko irtenbide duinak ematea".

Izan ere, Eskola Jangelarik ez duen Gipuzkoako ikastetxe publiko bakarra da Landaberri. "Gure herrian Lehen Hezkuntzako bi ikastetxe publiko daudela eta, gure ikasleek, beste ikastetxeak ez bezala, Udala Jangelara joan behar dute oraindik ere," adierazten du ikastolako organo gorenak.

Ez egokia eta garestia

Gainera, "jangela hau, mota honetako bakarra lurralde osoan, Michelingo Kiroldegian kokatua eta oinarritzko baldintzak bete arren, ez dago presatuta gaur egungo ikasleen kopuruetara ezta adinetara ere. Halaber, Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen Eskola Jangeletako baldintzak ere ez ditu betetzen" ohartarazten du.

Udal Jangelaren kokapena zeharo aldrebesa dela eta ikasleak bi egoitzetatik autobusean bideratu behar izaten dituztela salatzen dute. "Denak ezin ditugu bertaraino eramane, monitoreak Hipodromoko zubian dagoen geltokiraino bila etorri behar izaten dute" azpimarratzen du Landaberriko ordezkariek oharrak.

Era berean, "gure ikasleen familiei, beste eskoletakoei baino garestiago ateratzen zaie gaur egungo jangela, eta, hau gutxi balitz, Udalarik ere defizita sortzen dio zerbitzu hau mantentzeak" dio oharrak.

Halaber, Landaberri Ikastolak eskerrak eman nahi dizkio Udalarik egin duen ahaleginagatik, baita "Tripon-tzi" enpresari ere. •

Kultur web-ean sarrera euroko beherapenarekin

Kultura sailak estreinatu berri duen www.lasarteoriasarean.eu webgunea berri-tuz doa, eta Lasarte Oriako bizilagunei zerbitzu berri gehiago eskainiko dizkie. Egun hauetan sarrerak online saltzeko zerbitzua martxan jarri dela jakinarazi dute kultur arduradunek.

Donostiako AKTING enpresak eskaintzen duen autogestioko BarraBarra! zerbitzuarekin, auditoriumerako sarrerak erosi ahal izango dira, abendua eta urtarirako bitartean, eta Manuel Lekuonan egiten diren ikastaroen matrikula ere "egitea posible izango dela" uste du Boris Nogales Kultur zinegotziak.

Emailtza interesgarriak

Sarrerak online kudeatzeko zerbitzu hori G-Puntuak urrian antolaturiko final-zortzirenetan eskaini zen.

"Emailtza interesgarriak izan ziren eta Manuel Lekuonaren auditoriumera sarrera

era azkarrean egiteko gaitasunarekin. Gainera, sistemak eskaintzen duen era segurua-rekin, edozeinek bere etxetik sarrerak erosteko modua izango du, eta, bestela, beharra duenak, Manuel Lekuonaren 3. solairuan dagoen Internet kioskoan eros ditzake".

Sarreretan deskontua

Nogales zinegotziak aurreratu duenez, "Interneten bidez erositako sarrerak leihatilan erositakoan aldean deskontua izango dute; beraz, azaroaren 18ko Lasarte-Oria Dantzan "En attendant l'inattendu" ekitaldian, ohiko sarrerak 6,00 eurokoak izango dira eta www.lasarteoriasarean.eu webgunean erositakoak 5,00 eurokoak".

Gazteek gazte-txartelaren bitartez eta langabetuek dituzten deskontuek ere indarrean jarraituko dute, baina "on-line eskuratutako sarrerak dituzten deskontuak handiagoak dira". •

Aldundiak 2012ko aurrekontuak auzkeztuko ditu Hernanin

Gipuzkoako Foru Aldundiak jada auzkeztu ditu 2012ko aurrekontuak Batzar Nagusietan, baina besteak beste gipuzkoarren ordezkariei, herritarrei, Gipuzkoako gizarte eragileei eta elkartei ere auzkeztu nahi dizkie eta Gipuzkoako hainbat herri aukeratu dituzte auzkeztu hain egiteko.

Gure eskualdean, azaroaren 18an izango da hitzordua, Hernaniko Sandiusterreri aretoan, 19:00etan.

Krisiaren eragina nabarmena

na da aurrekontuetan eta horrek, Aldundiaren iritziz agerian utzi du nolako kalteak eragin dituen politika egiteko orain arteko moduak.

Horregatik, beste eredu bat eraiki behar dela deritzo Foru Aldundiak. Eta horretarako herritarren parte hartzea eta hitza garrantzitsua izango da. Aurten ezin izan ditu partehartze bilerak aurrera eramane, baina hurrengo urterako oinarriak ezarri nahi dituzte auzkeztu hauekin. •

Etorkinak kantuan euskaraz

Mundialak" kantu taldean behin elkartzen dira herri ezberdinetan euskal abestiak kantatzeko eta hain juxtu azaroaren 20an Landaberri BHI ikastetxean elkartuko dira eguerdiko 12etan. Saio irekia da eta kantua gustuko duen edonor joan daiteke bertara, etorkina izan edo ez, helburua etorkin eta euskaldunak elkar ezagutu, euskaraz jardun eta kantatzea baita, Petra Elser ekimenaren bultzatzaileak adierazi digunez.

Hilero saio bat egingo dute eta herri bakoitzean bertako abesbatza edo kantu taldeek parte hartuko dute. 20an Xumelako kideak izango dira kantu

berriak ikasteko entseguan.

"Mundialak" ez da abesbatza, emanaldi publikorik egiteko asmorik ez dutelako, noizean behin kantatzeko elkartzen den taldea baizik. Elser alemaniar euskaldunak kontatu digunez. Urrian Andoainen egin zen saioan 11 toki ezberdinetako 30 lagun elkartu ziren. Irailaren 4ean, Urretxun eta Zumarragan, burutu zen Iparragirre Kantuz Egunetik abiatu zen egitasmoa. Bertan, Euskal Herri osoko kantu talde ezberdinak bildu ziren.

Etorkinak euskal abestiak ikasten ari dira abenduaren 2an ostiralean Okendon egingo den Mintzodromoan kantatzeko. •



Mundialak taldeko etorkinak eta Petra Elser (erdian irribarrez) Urretxuko Iparragirre Kantuz topaketan, abeslari erraldoia atzean dutela.



Aurka izan zen Sustraiako azken kontzertuan jo zuen taldeetako bat, Keep Digging-ekin batera.



Kontzertuez gain, hitzaldi, antzerki eta filme proiektzioak ere egin izan dira Sustrain.

Sustrai eskenatokia galdu da momentuz

■ Hainbat talde eman da ezagutzera Kale Nagusiko lokalean ■ Hastapenetan hitzaldi, antzerki eta ekintza kulturalak egiten ziren ■ Urriaren amaieran itxi zen taberna azken kontzertuarekin

Urriaren amaieran itxi zen Sustrai taberna, hainbat urtetan herriko musika taldeen eta beste hainbat kultur eta giza talderen erakusleho izan den Kale Nagusiko lokala. Agur bezala, kontzertu berezia antolatu zuten urriaren 31n Keep Digging eta Aurka taldeekin. Gau berezia izan zen, goizera arte luzatu zena, eta Aurkarekin batera beste rock talde batzuetako kide eta musikariek ere jo zuten, Despervicio-koek esaterako. Sustrai ondo ezagutzen duen Xabier Mora Aurkako kideak azaldu digu Sustrai hamabi urte hauetan izan duen bilakaera.

Jon ALTUNA EGITEGI

Lasarte-Oriako Kale Nagusiko taberna deigarria izan da betidanik Sustrai. Hastapenetan, giro alternatiboen baitan, hitzaldi, antzerki edota ekintza kulturalak garatzeko tokia izan zen.

Gerora, ezagunagoa egin da musika taldeek bertan ematen zituzten kontzertuengatik. Herriko taldeentzat ezagutzera emateko primerakoa zen eskenatokia galdu egin da oraingoz, jabeek diru arazoak direla eta, uztea erabaki baitute.

Sustrai barru-barrutik ezagutu izan duen Xabier Morarekin bildu gara, Sustraiaren inguruan zertxobait gehiago jakin nahian.

Antzerki, filme, hitzaldi...

Sustrai herriari zer eman dion galdetuta, argi dauka erantzuna Morak. "Giro itzela sortu izan du gazteen artean, ez zegoen eta herrian gaztetxerik. Geneukana botatzean, Txema eta Ainhoak hartu zuten, eta mesede handia egin izan dio herriko giroari".

Izan ere, Sustrai, taberna soil bat baino gehiago zen. Antzerkiak, dokumentalak, hitzaldiak... Denek topa zezaketen euren lekua bertan. Azken finean, taberna alternatibo eta kulturala izan baita.

Obelix aitzindari

Gehienbat Obelix-ek altxatu zuten giro musikala herrian. Sustraiaren papera berriz, kulturalagoa zen hasiera haietan.

Bertan AHT-a, Itoizko urtegia eta halako gaien inguruko hitzaldiak ematen ziren. "Gerora sartu zen musika Sustrain. Obelix-ek berriz, hasieratik izan zen musikarekin lotura estuagoa" dio Morak.

Herriko taldeen sehaska

Herriko taldeentzat eskaparate paregabea izan da Sustrai. "Ezagutzera emateko aukera aparta zeukaten, ez zuten agian karrera musikala bertan hasiko, baina beste herrietako taldeak hona etorri eta gu besteetara joatea behintzat, lortzen genuen", dio Morak. Elkartrukea zen nagusi Kale Nagusiko lokalean.



Sustraiaren historia osoan zehar izan diren kontzertuetako argazkiak jarri zituzten tabernan bertan erakusgai.

Izan ere, kontzertu ugari antolatzen zituen Sustrai, 30-40 bat urtean. "Urteek aurrera egin ahala, geroz eta gutxiago egin dira", aitortu du Morak. Musika motari buruz galdetuta, gehienbat, punk, metal eta rock-a izaten zirela esan digu. "Punk-a batez ere, Hori izan da Sustraiaren arima".

Hasierak azkena zor

Hainbat bizipen bizi izan ditu 12 urte hauetan, baina bat aukeratzekotan, bereziki azken kontzertua du gogoan. Itxierarena, Keep Digging eta Aurkak eskaini zutena. "Berezia izan zen, batik bat Despervicio eta beste talde batzuekin

hainbat bertsio jo genituelako. Ederki pasa genuen".

Sustraiaren amaierak askotariko sentimenduak sorrazten dizko. "Beti ibili izan gara hor, gazte-gaztetatik. 16 urte genituenetik ezagutzen dugu taberna eta Obelixek bezala, Sustrai bizitza handia eman izan dio herriari. Ez dira gaztetxeak, baina herria suspertu zutela esan daiteke".

Gaztetxe faltan, taberna

Gaztetxea 1996tik 1999ra bitarte egon zen irekita Lasarte-Orian. "Etxea deitzen genion, Andre Joakinenea azpian zegoen kokatua. Bizitza asko ematen zion herriari".

Xabier Moraren esanetan, maila handiko kontzertuak entzuteko aukera izaten zen gaztetxean: "Hainbat kontzertu eskaini zituzten kanpotik etorritako taldeek, adibidez Holandatik edo Bartzelonatik etorri izan dira gure herriko gaztetxera kontzertuak ematera".

Gogoan du, Kashbad eta Des-Kontrol bezalako taldeek hasiera haietan "Etxea"n jo izan zutela.

Gainera, Sustrai lehen jabeak gaztetxean bertan ibiliak izan zirela gogorazi du eta gero Sustraiaren proiektuan murgildu zirela buru-belarri, Gaztetxea eredu hartuta. •

Egunero

Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Asteartea, 15

Ipuin-kontalaria

KONTU KANTOIKO lagunek 6, 7 ETA 8 URTEKO gaztetxoei zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, **18:00etan**, EUSKARAZ

Asteazkena, 16

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "LOTARAKO ORDUA DA" PILAR SEMINARIOREN eskutik. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**



Tanzaniako bizipenak

Ttakun Kultur elkarteak antolatzen dituen diaporama zikloaren barruan, JEXUX PRESAK TANZANIARA egindako bidaia-
ren berri emango du. Bertan Kilimanjaro mendira igo zen eta hainbat abentura bizi izan zituen.

ASTEAZKENA 16
21:30EAN
JALGI KAFE ANTZOKIAN

Osteguna, 17

Dantza

"EN ATTENDANT L'INATENDU" dantza garaikidea eskainiko dute, LASARTE-ORIA DANTZAN ekimenaren hirugarren saioan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **20:00etan**. Sarrera, 6 euro.

Online zerbitzuan, 5 euro.

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, VALOR DE LEY filma eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **21:30ean**. Sarrera, 4,30 euro.

Ostirala, 18

Kontzertua

OVERLOUD eta *Mister Machin* taldeek HARD ROCK GAUA eskainiko dute. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**

Astelehena, 21

Kontzertua

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolak antolatuta, SANTA ZEZILIA dela eta, TXORIMALOAK SOINU TALDEAREN kontzertua. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:00etan**

Asteazkena, 23

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin kontalaria 5, 6 ETA 7 URTEKO gaztetxoei zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ



Diaporama

Aitor Atxegak MEXIKORA egin zuen bidaia azalduko du. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean**, EUSKARAZ

Oharrak

EHNArekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeek deialdia luzatu nahi die herri-
tarrei azaroaren 20an, hautes-
kundeetan Euskal Herriko
Nazioetasun Agiriarekin
(EHNA) bozkatu dezaten.

Baztango bailarara irteera

Biak Bat erretiratuen elkar-
teak azaroaren 25ean irteera
antolatu du Baztango bailara-
ra. Bertan San Salvadorreko
monastegia eta errota zaharra
bisitatuko dituzte. Hamaike-
takoa eta bazkaria Elizondo-
ko Baztan Hotelean izango
dira.

Irteeraren prezioa 34
eurotako da. Izena ematea
Biak bateko egoitzako bule-
goan egingo da, 10:30etatik
12:30era eta plazak amaitu
arte egongo da irekia.

Batukada taldearen bilera

Azken urteetan, Ttakun Kultur
elkarteak antolatu eta eskaini
dituen ekintza ugarien artean,
Batukada taldea dago.

Urte beteko etenaldiaren
ostean, antolatzaileek proiektu
berriro ere martxan jarri
nahi dute eta bilera bat egin-
go dute taldearen entsuegu
egunak, orduak, etb. zehazte-
ko. Bilera azaroak 16an izan-
go da 18:00etan Ttakuneko
gazte lokalean, Iñigo de
Loyola kalean.

Marrakzi eta margo eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen
elkarteko marrakzi eta margo
eskolan oraindik plazak
badaude.

Eskolak asteazkenetan eta
ostiraletan 18:00etatik
19:00etara eta larunbatetan
09:30etik 11:30era izango
dira. Interesa dutenek kulture-
txeko 2. solairura jo behar
dute.

Udako Txokoetako argazkiak

Udako Txokoetako argazkien
CDak prest daude. Txokoetan
ibili diren haur guztiei bana-
tuko zaizkie eta jasotzeko
Ola kalea 1ean dagoen Ama-
raun Ludotekatik pasa behar
da 17:00etatik 20:00etara
azaroaren 25a arte.

Euskal Dantza taldea

Landaberri BHLn entsaiatzen
duen Euskal Dantza taldea,
Felix Telleriak zuzendutakoa,
lanean hasiko da.

Entseguak astearte eta
ostegunetan izango dira
20:00etatik 21:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiako programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue
ostiralero 9:30etik 10:45era

Eskutitza

Pirritx eta Porrotx

Beste behin ere Pirritx eta Porrotx pailazoak kriminali-
zatuak izan dira komunika-
bide ultraeskuindarrenetan
eta informazio horiek, Nafa-
rroako Partido Popularrak,
UPNko Jose Iribas Hezkun-
tzako Kontseilariak zuzen-
tzen duen Saileraino eraman
ditu eta aintzat hartu ditu.

Kontua zera da, Arbizu-
ko udalerria Marda udalerrri
palestinarrarekin senidetuta
dagoela eta bertako eskola-
rekin garapenerako eta koo-
peraziorako proiektu
hezitzailea daukala martxan
Arbizuko eskola publikoak.

Honen kontura, "Vicente
Ferren garapenerako hez-

kuntza saria", Espainiako
Gobernuaren Hezkuntza
sailak antolatutako sari
garrantzitsua jaso zuen iaz
eskola publikoak, eta elkar-
tasun proiektu horren baitan
ulertu behar da, joan den
ihauterietan egin zuten jaial-
di hau non Pirritx eta
Porrotx partaide izan ziren
eta orain Nafarroako Hez-
kuntza Sailean aztertzen ari
direna "kontsekuentziak eki-
teko".

Lasarteko pailazo talde
maitatu honek jasaten
dituen presio mediatikoen
beste adibide bat da eta
honetarako Udaletxe hone-
tan Batasuna alderdiaren
baitan egin zuten lana era-
biltzen dute, kriminalizatu

nahian, umeen "adoktrina-
mentua" egiten dutelakoan.

Gure aldetik ezin dugu
pasatzen utzi aukera hau
jjasaten dituzten presio nar-
dagarri eta oinarrigabeak
gaitzesteko eta euren lana
goraipatzeko: elkartasuna,
maitasuna, errespetua,...
bezalako baloreak umeen-
gan zabaldut.

GU ERE IRRIEN LAGU-
NAK GARA!!!!!!!!!!!!!!

Sentitu, pentsatu eta
egin!

Lasarte-Oriako
Gobernu Taldea

Dagokionari

Hauze duzu zure
iritzia eta nahi duzuna
adierazteko atal
aproposa. Bidali edo
zuzenean ekarri
TXINTXARRI aldizkarira.
Horretarako aukera
desberdinak dituzu;
telefonoz,
943-366858
zenbakira deituta,
posta elektronikoz
txintxarri@ttakun.com
helbidera bidaliz.
Gure bulegora
ekarriaz
(Geltoki kalea 4).

Ane Labaka, txapeldun, Udarregi Sarian

- Belaunaldi oso ezberdinetako bertsolariak batera kantuan ikusteko beta izan zen larunbatean
- Giro paregabea izan zuten bai afaldu aurretik egindako kantu jiran baita afarian bertan ere

Gipuzkoako bertsolari txapelketan final-laurdenetan kanpoan geratu ostean, arantza atera zuen Ane Labaka herri-tarrak larunbatean txapela jantzi baitzuen Udarregi Sarian. Giro paregabea izan zen Usurbilen arratsaldeko Kantu Jiratik hasita, gaueko ordu txikietaraino. Txapelketa afalostean egin zuten, hiru bertsolari "gazte" eta beste hiru "beterano" aritu ziren elkarren aurkako lehian. Tartean izan zen Patxi Etxeberria herriarra, beteranoen taldean. Udarregi Sarian txapela eskuratu ostean, Bertxoko Araban egiten den txapelketako finala du begiz jota herriko bertsolari gazteak. Azaroaren 25ean du zita.

Jon ALTUNA EGITEGI

Asteburu borobila izan du Ane Labaka bertsolariak, aurrekoa baino askoz ere pozgarriagoa. Honetan bi hitzordu zituen eta bietan asmatu.

Ostiral gauean Kanpezun kantatu zuen Bertxoko sariketako bigarren kanporaketan eta finalerako txartela lortu zuen. Eta larunbat gauean nagusi izan zen I. Udarregi sariketako finalean, eta txapela jantzi zuen.

Jaialdi berezia

Giro polita izan zen arratsalde zein gau osoan zehar Usurbilen, bertako Bota Puntutua bertsoskolan antolatutako jaialdian.

Berezia izan zen bertan sei bertsolari aritu zirelako nor baino nor, hiru "gazte" eta hiru "beterano".

Beteranoen multzoan, Patxi Etxeberria herriarra, "Olaso" eta Luis Otamendi aritu ziren. Gazteen taldean berriak, Ane Labaka, Aitzol Barandiaran eta Maialen Velarde.

Ane Labakak azaldu digunez, beteranoekin kantatu ahal izatea "sekulako esperientzia" izan zen. Hirurak

aritu omen ziren "ideiez fresko eta maila onean".

Kantu jira

Afaltzen hasi aurretik, Usurbilgo taberna ezberdinetan zehar ibili ziren kantua eta bertsoa uztartuz. Kantuen doinuak erabiliz, bertsok osatu behar izan zituzten bertsolariak.

Giro ederrean ibili ziren guztiak afaltzeko ordua iritsi arte. Behin afaria bukatuta, eta kafeak hartzen hasi baino lehen, hainbat kantu herriko abestu zituzten afaltzen egon zirenek.

Afalostean, txapelketa

Behin sabelak beteta, mihiari eragiteko ordua iritsi zen eta erritmo bizian aritu ziren sei bertsolariak. Gehienbat umore kutsua izan zuen saioak hasieratik bukaera arte.

Lan dezente egin behar izan zuten larunbat gaueko saioan. Ofizioki aritu behar izan zuten lehenik eta hain juxtu elkarrekin aritu ziren bi lasarteotarrak. Patxi Etxeberria langabetua zen eta haren izeba Ane Labaka lan ministroa. Ederki aritu ziren egokitu zitzaizkien paper horietan.

Saioak aurrera egin ahala, afaltzen ari zirenen animoek ere gora egin zuten. Jendea



Ane Labaka, txapela jantzi ostean agurra kantatzen. Gipuzkoako txapelketatik kanpo gelditu eta gero, asteburu borobila izan du hau.



Hiru gazte eta hiru beterano aritu ziren nor baino nor larunbat gauean Agerialde ikastolan. Irudian, lehiaketari ekin aurreko argazkia.

zutik jarri ere egin zen hainbat momentutan.

Puntuka ere ale politik entzun ziren eta aipatzekoa da Patxi Etxeberriak Maialen Velarderekin batera zortziko txikiak egindako lana. Biak aritu ziren bikain.

Esperientzia berria

Beterano zein gazteentzat, batzuek besteengandik ikasteko aukera aparta izan zen Usurbilgo saioa.

Ane Labakak aitortu digunez, beteranoekin kantuan aritzea gazteekin aritzea

baino "biziagoa" da, erritmo azkarragoa darama saioak eta eskola zaharreko bertsolariak "muinera" jotzen omen dute.

Beteranoen kasuan, Olasok esaterako, mikrofonoarekin harremana berreskuratzeko aukera izan zuen. Sei urte zermatan bertsotan aritu gabe eta egia esan, ez zitzaion itzulera batera gaizki joan, entzuleen saria berak jaso baitzuen.

"Bertxoko" txapelketa

Ane Labakaren hurrengo erronka Araban egiten den "Bertxoko" sariketako finala izango da.

Lehiaketa honetako saio bakoitzean, hiru bertsolari arabar eta Arabaz kanpoko beste hiru aritzen dira nor baino nor eta Kanpezuko kanporaketan finaleko txartela lortu zuen Anek ostiralean.

Aramaion jokatu du finala azaroaren 25ean. •



Lasarteotarrak ere joan ziren Usurbilgo I. Udarregi Sariko afari eta ondorengo finalera.



Patxi Etxeberriaren bertsoak arretaz entzun zituen Ane Labakak.